

# AIARALDEA *hemen*



TXANI RODRIGUEZ:  
**“Migrazioaren seme-alabok  
bakardade puntu sakon bat dugu.  
Ez dugu familia sarerik”** 14-15 or.

HEZKUNTZA GEHIGARRIA:  
**Haur Hezkuntzako, Lehen  
Hezkuntzako eta DBHko  
aurrematrikulazioa**



## Alarma guztiak piztuta

**ARTZINIEGA 8**  
**Plakak jarriko dituzte  
eskolan, pilotalekuan eta  
kiroldegian**  
36.700 euroko diru laguntza  
jaso berri du tokiko  
erakundeak eguzki-plakak  
jartzeko

**URDUÑA 9**  
**Hutsik dauden orubeei  
zergak igo dizkiete  
“eraikuntza sustatzeko”**  
%0,362ko karga tasa ezarriko  
diete orubeei, industriako  
lursailek dutenarekin  
parekatuz

**AIARALDEA 12**  
**Martxoaren 22an igaroko  
da Korrikaren 23. edizioa  
eskualdetik**  
Goizeko 6:25ean sartuko  
da Aiaraldeara, eta hainbat  
herri txiki bisitatuko ditu  
euskararen aldeko lasterketak

**KULTURA 20-21**  
**Hamahiru musika taldek  
joko dute Orozkorocken,  
erabat doan**  
Maiatzaren 17 eta 18an egingo  
dute musika jaialdiaren edizio  
berria. Honezkero aurkeztu  
dituzte musika taldeak

**KIROLA 18-19**  
**Cerro Torre Patagoniako  
mendi ezaguna eskalatu  
du Tasio Martinek**  
Urduñarrak urtarrilaren  
12an zapaldu zuen tontorra,  
lehenengo eskaladatik mende  
erdi betetzen den urtean



# erreportajea



## Osasun sistema publikoaren kudeaketa, osasun-publikoko arazo

David Hernandezen, Laudioko anbulatorioan medikurik ez zela zendu zen pazientearen heriotzak alarma guztiak piztu ditu, eta azalera ekarri du Osakidetzaren egoera kaskarra. Profesionalek gordin hitz egin dute: “herritarrak mehatxatzen dituen osasun-publikoko arazo larri baten aurrean gaude”.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Osasun sistema publikoaren gabeziak azalera eta alarma guztiak piztu ditu David Hernandezen heriotzak. Iragan urtarrilaren 12an zendu zen 42 urteko laudioarra, Laudioko anbulatorioan zela bihotzekoak jota. Ezbeharrak gertatu ziren unean ez zegoen medikurik Etengabeko Arreta Gunean, eta bi erizainek bakarrik erantzun behar izan zioten krisialdiari.

Gertaerak haserrea eta samina zabaldu ditu eskualdean. Hernandezek bizia salba zezakeen ala ez, baina medikuarengatik artatua izateko eskubidea ukatu egin zitzaioela salatu dute azken astean sindikatu, eragile eta herritarrek.

Urtarrilaren 16an egin zuten gertatutakoa salatzeke lehenengo protesta anbulatorioko atarian, ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek deituta. Hauekin batera herritar uholde bat batu zen elkarretaratzera, ezbeharrak herrian sortutako atsekabearen erakusgarri. Sindikatuen aburuz, gertatutakoak agerian utzi du Osakidetzak azkeen urteetan pairatu duen “murrizketa eta *desmantelazio*” prozesua, eta osasun sistemaren gaur egungo kudeaketak “herritarren bizitzak arriskuan” jartzen dituela salatu zuten.

### Manifestazio historikoa

Erantzunik irmoena, ordea, urtarrilaren 19an egindako mani-

festazio masiboan eman zuten herritarrek. Hernandezen lantoki izandako JEZeko enpresa batzordeak eta SOS Aiaraldea plataformak deituta milaka lagun atera ziren Laudioko kaleetara, azken hamarkadan egon den manifestazio jendetsuenetarikoa. Eskualdeko osasun sistema publikoak bizi duen “egoera kritikoren aurrean” berehalako neurriak hartzeko unea dela aldarrikatu zuten bi mila lagun baino gehiagok.

Erreakzio eta erantzun katea ez zen ostiraleko manifestazioan eten; Laudioko Udalak, esaterako, premiazko bilera eskatu dio Gotzone Sagardui Osasun Sailburuari, egoerari erantzun bat emateko.

### Mediku falta

Hernandezen heriotzak eztabaida lehen planora ekarri duen arren, aurretik asko izan dira mediku faltagatik alarma mezuak zabaldu zituzten eragile eta sindikatuak.

LAB sindikatuak iazko maiatzean egin zuen salaketa publikoa: Laudioko larrialdi zerbitzuak hiru egun egon ziren medikurik gabe. Sindikatu abertzaleak azaldu zuen maiz jasotzen zirela horrelakoak, eta, Laudion ez ezik, Amurrioko osasun zentroan ere antzekoa gertatzen zela salatu zuten.

Mugimendu Feministak ere azaldu zuen bere kezka mediku faltarengatik. Izan ere, mediku falta horrek eraso matxisten aurkako salaketak oztapatzen ditu. Mugimendu Faministako kideek



Aiaraldea Komunikabideari azaldu diotenez, “erizainek ezin dute lesioen agiria sinatu forentse batek bere gain hartzeko”. Hori dela eta eragile feministek erasoan aurkako protokoloak ere moldatu behar izan dituzte, eraso matxista baten kudeaketan anbulatoriora jo aurretik bertara deitu eta medikurik degoen edo ez galdetzeko. “Batzuetan ordu laurden baino gehiago ematen genuen telefonoan soilik jakiteko medikua zegoen edo ez. Larriena da askotan ez zekitelaz zer erantzun”, azpimarratu dute Mugimendu Feministako ekintzaileek.

Iñaki Moreno Laudioko osasun zentroko erizainak ohartarazi du Osakidetzako baliabide falta hori ez dela azken urteetan gertatzen ari den zerbait soilik. “Ez dezagun pentsa paradisuan bizi ginenik, eta halako batean infernura iritsi garenik. Tamalez, Laudion jasotako ezbeharrek urtez urte luzatu diren arazo estrukturalak azalera ekartzen dituzte”, nabarmendu du Poliedroa elkarrizketa saioan.

#### Non daude medikuak?

Medikuak falta dira bai, baina zergatik? Morenok aipatu bezala aspalditik datorren arazo estrukturala da honakoa. Galdareri erantzuna biltzeko bidean koska bat gehiago egin du Roberto Gonzalez Aiarako familia medikuak: “Osakidetzak esango du ez dagoela medikurik inon eta paziente eta kaltetuek esango dute ez dagoela medikurik kontratatuta. Ondorioa berdina da bai; ez dago medikurik. Baina medikurik ez egotearen arrazoia desberdina da bi kasuetan”, azaldu du Robertok.

Urte luzez medikuak “petrolio merke” bezala erabiliak izan direla salatu du Aiarako familia medikuak: “Garai batean medikuen gaindosia zegoen, eta kontratu zaborrak egiten zizkiguten, kontsultatze inolako aukerarik gabe”. *Baby-boom* belaunaldiko medikuek erretiroa hartu ahala, haien hutsunea ez du erritmo berdinean bete Osakidetzak, urte luzez geroratu egin duen aurreikuspen falta ikaragarri baten ondorioz”.

“Medikurik ez dagoela esaten dutenean egia da; baina zergatik egrtatzen da hori? Ez da gertatzen kontratatze medikurik ez dagoelako, baizik eta ez dagoelako nor kontratatu eskaintzen diren lan-baldintzekin,” azpimarratu du.

Roberto Gonzalezek berak hamahiru urte eman ditu fami-



**Roberto Gonzalez**

Medikua

**“Jendeak jakin beharko luke non ez dagoen medikurik, beharra duen unean denborarik galdu gabe artatua izango den lekura joateko”**

lia-mediku egoiliarak formatzen, eta Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez formatu dituen mediku guztietatik bakarrak jarraitzen dun lehen-arretan lan egiten, “lan-baldintzak onartezinak direlako”.

#### Profesionalen bokazioa

Arazo estruktural horren aurrean urtez urte ezikusiarrena egin du Osasun Sailak, eta, hain zuzen ere, osasun-profesionalak izan dira bokazioz, unean une sortzen ziren, eta diren, hutsuneak betetzen dituztenak. “Ni neu larunbat askotan laguntzera joaten naiz Laudioko edota Basauriko EAGetara. Hori ez da nire lana, baina medikuon onkeria eta boluntariotzagatik aurrera ateratzen da —dio Roberto Gonzalezek—. Hori ez da konponbiode bat, hori partxe bat da. Erakina erortzen ari da, eta arduradunek ez dute inondik inora aurreikusi”.

Etengabe arazoei aurre egiten egon beharra nekea areagotu du osasun-langileen artean. Erreta dagoen profesionalaren sindromea da *Burn-out* sindromea, eta



**MAIDER URTARAN LARESGOITI**

OSASUN PUBLIKOAN MASTERRA ETA IKERTZAILEA

## Osasungintza sistema publikoa babesteko beharraz

Azken egunetan eskuak burura eraman ditugu, amorruez bete dira sareetan zabalduko mezuak, eta mobilizazio olatua altxatu da eskualdean. 42 urteko gizon bat hil da Laudioko anbulategian, bihotzkeoak jo ondoren. Zaintza intentsiboko unitateko anbulantzia iritsi bitartean, bi erizainen arreta jaso zuen bertan, medikurik ez baitzen etengabeko arreta puntuan. Osasungintza publikoaren aldeko plataformek, sindikatu eta eragile ezberdinek salatu dute kasua.

Larria da oso gurean gertatu dena, baina ez da gertakari puntuala. Ez gaitetzen soilik, mesedez, kasuaren salaketa partikularrean geratu. Ibilbide eta prozesu konplexuago baten muturreko egoera baino ez da hau.

EAE n aspaldi ari gara ikusten eskualdeko osasungintza zerbitzu publikoetan inbertsio falta eta utzikeria. Pandemia garaian bereziki kezagarria izan zen lehen arretako osasun langileen egoera eskasa, baita jendartearen osasun beharrei erantzuteko baliabide eza ere. Ondoren, jarraitu zioten eskualdeko anbulategi eta osasun zentro ezberdinetan larrialdi zerbitzuak medikurik edo pediatriarik gabe geratzen ziren egunek, lehen arreta zerbitzuen ordutegi murrizketek, kontsultategi batzuen itxierrek. Asko izan dira bizi duten egoera prekarioa eta lan gain-karga egoera salatu duten profesionalak ere.

Osasungintzan ematen diren prozesu neoliberalen adierazgarri zuzenak dira horiek guztiak. Ez da “kultura aldaketa”, edo “prozesuen efizientzia hobetzeko neurria”. Erabaki politikoek eraman gaituzte gaur egungo egoerara: Osakidetzan giza baliabide politika prekarioak, giza inbertsio eza edota murrizketak, denak ala denak pribatizazioa sustatzeko asmoz egindakoak. Gure osasun zerbitzu publikoen irisgarritasuna eta kalitatea kaltetuz, osasun sistema pobre bihurtzeko politika deliberatuak dira guztiak. Eta “sistema pobrea, pobreentzako sistema da”.

Azken urteetan, itxaron zerrendak hazi dira, Osakidetzarekiko gogobetetze-maila jaitsi da herritarren artean eta entitate pribatuekin osasun seguruen kontratazioek gora egin dute. Egiaztatua dago osasun sistema publikoaren ezaugarriek biziki baldintzatzen dutela seguru pribatuen bilakaera. Eta seguru pribatuen gorakadak eta zerbitzu publikoen dekadentziak herritarren arteko desberdintasun sozialak areagotzen ditu. Osasun baliabideak komunitate aberatsetan zentralizatzen ditu, eta osasun sistema publikoa sozialki deslegitimatzeko du.

Horren aurrean, pertsonon beharrak asetuko dituen zerbitzu indartsuak behar ditugu, publikotasunetik eta kolektibotik eraikitakoak. Konfiantzazkoak eta solidarioak, norberak behar duenean eta behar duen neurrian erabiltzeko eskura izango dituenak. Eta hori bermatzeko gaur egun ia existitzen ez den kudeaketa gardentasun mekanismoak baliatzea derrigorrezkoa da.

Pribatizazioaren logikak, aseguru-etxe pribatuek irabaziak handitzeko aukerari baino ez dio erantzuten, herritarren arteko desberdintasun-tartea handituz eta ziurgabetasun egoerak sortuz. Osasun publikoa indartzea eta baliabideen banaketa beharren arabera planifikatzea da desberdintasunaren bidea iraultzeko formula bakarra. Osasungintza sistema publiko indartsua behar dugu, denon bizitzak erdigunean jarriko dituenak.





# erreportajea



**Iñaki Moreno**

Erizaina

*“Erizain batek ezin du mediku bat ordezkatu, eta ez du ordezkatu behar. Ez da bere ardura, gehiegi ari zaie eskatzen”*

emaitzen arabera unitateko profesionalen %70 zeuden arako Unitatean ikerketa bat egin zen duela urte batzuk, *Burn-out* sindromea detektatzeko. “Profesional askok dugun sentzazioa da oso arreta eskasa ari garela eskaintzen azken aldian. Frustratneta da jakitea nola egin behar duzun zure lana eta horrela jardun ezin izana —azaldu du familia medikuak—. Horrek zer sortzen du? Tristura, frustrazioa, estutasuna, negar egiteko gogoia eta azkenik lehen arreta abandonatzea”.

Iñaki Moreno erizainak ere igarri du profesionalen neke kolektibo hori: “Lanean hasi ginenean bageneukan buruan ilusioa, lan egiteko beste modu berritzailea. Denboraren poderioz hasierako amets horiek ez ditugu lortu, eta gaur egun atzeratze porzesuan murgilduta gaude, argi eta garbi”.

## Erizainen ardura

Medikuaren faltan Etengabeko Arreta Gunea osatzen duten gainerako osasun langileei egozten zaizkie lehenegon honen funtzioak. Morenok azaldu du larrialdi-zerbitzuetako lan taldean, ohikoan, medikuak, administariak eta erizainak elkartzen direla, eta bakoitzak funtzio definitu eta zehatzak bete behar dituela. Erizainek ezin dituzte, esaterako, diagnostikoak egin, errezetak luzatu edota pro-



tokolo zehatzetatik haratago doazen tratamenduak jarri. “Erizain batek ezin du mediku bat ordezkatu, eta ez du ordezkatu behar. Ez da bere ardura, gehiegi ari zaie eskatzen. Bakoitzak bere lana badauka, bere lana oso ondo zehaztuta dago, eta mediku baten erantzukizuna ezin zaio erizain bati eskatu. Lantalde bat da. Nire ustez ez da zilegia medikurik ez egotea”.

Roberto Gonazlez bat dator baieztapenarekin, eta Osasun Sailaren utzikeria kritikatu du: “Ez dut uste Osasun Sailatik beherako arduradun bakar bat ere Laudio-ko anbulatoriora hurbildu denik hildako herritarra artatu zuten erizainei zelan dauden galdetzeko”.

**Hernandezen heriotzak eztabiada lehen planora ekarri duen arren, aurretik asko izan dira mediku faltagatik alarma mezuak zabaldu zituzten eragile eta sindikatuak**

## Osasun-publikoa kaltetuta

Osakidetzaren kudaketa honek herritarrengan “eragin zuzena” duela azpimarratu du Roberto Gonzalezek, eta arazoa “osasun-publikoko arazo larritzat” jo du. “Titanica hondoratzen ari da. Ez dugu iceberg saihesteko planik behar jada jo dugu iceberg hori. Hondora goaz, egoera hau da konpondu beharrekoa”.

Halaber herritarrei informazioa ukatzea ere gogor kritikatu du Aiarako medikuak: “Ez dago medikurik ez, eta, gainera, herritarrei ez zaie informazioa eskaintzen. Medikurik ez badago, Etengabeko Arreta Gunea itxi beharko luke Osakidetzak, edo gutxienez medi-

kurik ez dagoela adierazten duen kartel ofizial bat eskegi. Jendeak jakin beharko luke non ez dagoen medikurik, beharra duen unean denborarik galdu gabe artatua izango den lekura jaoteko. Osasuna dago jokoan”.

## Konponbide falta

Balitzko konponbidez galdetuta Roberto Gonzalezek argi du Osakidetzari eta Osasun Sailari dagokiela neurriak premiaz hartzea: “Ezin dugu ahaztu gu langileak garela, Osakidetzaren deituriko enpresa batek kontratatuak. Osakidetzaren da herritarrei ahalik eta arreta onena ematearen ardura-duna. Gure betebeharra gure lana



# “Espero dut nire semearen heriotzak balio izatea osasun sistema publikoan dauden arazoak konpontzeko”

**FABIAN HERNANDEZ** LAUDIOKO ANBULATORIOAN OSTIRALEAN ZENDUTAKO DAVID HERNANDEZ 42 URTEKO GIZONEZKOAREN AITA DA ETA GERTATUTAKOREN INGURUAN MINTZATU DA, BAITA JARRIKO DUTEN SALAKETARI BURUZ ERE.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

## Lehenik eta behin, nola zaudete?

Minduta, nahiko minduta familia osoa. Ez genuen espero, ez guk ez inork, herriak erakutsi duen moduan. Beti egongo gara eskertuta herriak izan duen erantzunarekin. Espero dugu hau berriro ez gertatzea, Administrazioak egin behar du zerbait ez errepi-katzeko.

18.000 biztanleko herri batean horrelako gertakarietara heldu beharra jendea kalera ateratzeko eta Administrazioak behingoz esku hartu dezan...

Medikuak eta erizainak profesionalak dira eta ez dute inolako errurik. Ezin ditugu medikuak eta erizainak errudun bilakatu, eurek ez dute errua, Administrazioaren ardurua da, ez dituelako bitartekoak jarri.

Nik ez dakit Daviden heriotza prebenitu ahal zen edo ez. Agian bihotzekoak ez zuen konponbiderik, baina arazoa da Administrazioak zer egin duen orain arte. Zergatik zeuden bi erizain eta ez

mediku bat? Zergatik ez dago Amurrion, Aiaran, Laudion, Orozkon... mediku bat?

Anbulatorio batek medikua izan beharko luke beti, gutxienez, larrialdiei aurre egiteko. Horrela izan beharko litzateke, baina Administrazioak ez du ezer egiten. Ez hemen, ez Salamancan. Han bizi gara erretiroa hartu genuetik eta ia bera gertatzen da.

Osasun sistema publikoak okerrera egiten du. 1980ko edo 1990eko hamarkadetan etortzen ziren anbulatoriora eta medikuak zeuden. Berdin zuen gaueko ordubiak edo hirurak, bazegoen medikua, nahiz eta zure bizitzaren alde egiteko tarterik ez izan. Hala eta guztiz ere, bazegoen medikua eta berak erabakitzen zuen ospitalera bidali edo ez.

Eta Davidena ez da isolatua izan, milaka kasu egon dira. Orain guri hau gertatu zaigula, jende ugari etortzen zaigu zer gertatu zaion kontatzeko. Beti berdin, hori bakarrik gogoratzen dugu kasu larriak jazotzen direnean.

Nik espero dut nire semearen heriotzak balio izatea hau konpontzeko.

## Zer egingo duzue zuek?

Momentuz uste dut gertatutakoa mugitu behar dugula. Autopsiaren zain egongo gara, baina autopsiak berak ez du zerikusirik. Davidi gertatutakoa salatu behar da, baina ez medikuen edota erizainen kontra. Eurak profesionalak dira. Administrazioa da izorratzen duena 18.000 biztanleko udalerrria. Hau ezin da onartu eta norbaitek erantzun behar du.

## Zer gertatu zen zehazki?

Lehen eskutik dakigu gertatutakoa. Kasualitatez, lagun bat igaro zen anbulatoriotik eta ikusi zuen David. Galdetu zion zer moduz zegoen eta berak erantzun zion arnasteko arazoak zituela. Lagun honek esan zion lagunduko zuela eta larrialdietan sartu zuen eta, erdi txantxetan, aulki gurgildunean eseri zuen, beti baitzeuden txantxetan.

Davidi galdetu zion ea nahi zuen familia deitzea eta nire semeak erantzun zion ezetz. Laguna geratu zen bere zain eta bi erizainek hartu zuten David eta sartu zuten barrura. Hor aztertzen

ari ziren eta bat-batean erizain bat atera zen korrika, esanez anbulantzia medikalizatu deitzeko beharra zegoela, bihotzekoagatik.

Bere laguna zur eta lur geratu zen eta erizainek eskatu zioten mugitzeko laguntza. Lagundu zion ondo kokatzen eta erreanimazioa egiteari ekin zioten. Orduan mutil honek deitu zion bere familiari eta eurek guri; Salamancatik etortzeko esan ziguten, larria zelako.

Denbora ugari eman zuten erreanimazio maniobreakin, baina ez zuten ezer lortu. Ziurrenik bihotzeko lazgarria izan zen eta ez zegoen modurik ezer egiteko. Ezin zaio errurik bota osasun langileen taldeari.

Beste kontu bat da medikurik ez egotea. Mediku batek esan ahal zigun ez zegoela ezer egiteko. Gu gutxienez lasai egongo ginateteke, baina ez da horrela izan eta arduraz ez da erizainena izan.

Administrazioak lan izugarriak ematen dizkie erizainei. Lan zama izugarriak. Familian badaude erizainak eta depresioak eragindako bajak hartu behar izan dituzte. Ez da posible erizain batek sekulako ardurak izatea; adibidez, gorputz atalak garraiatzea leku batetik bestera, transplante baterako. Ez da bere lana, ez diete uzten euren lana egiten.

Eta medikuei gauza bera. Medikuek egon behar dira azaltzeko zer gertatu den.

Dena amaitu zenean Daviden lagunak deitu zigun eta Salamancatik itzultzen ari ginela suposatu genuen zer gertatu zen. Hiru ordu eta erdiko bidaia da eta inork ez zigun deitzen edo idazten. Elkar begiratzen genuen eta pentsatzen genuen zerbait larria gertatu zela.

Laudion sartu ginen eta 01:10ean ikusi genuen jende pilo atarian. Alabaren lagunak, bere lagunak... Ni ez nintzen ezta autotik atera. Imajinatu nuen.

Hau esanda, nire eskerrik beroena Laudioko herriari, oso ondo portatu baita.



ahalik eta hobekien egitea da, baina guk ez dugu konponbidearen giltza”.

Gonzalez, ordea, ezkorra da: “Laudiokoa gertatu denetik ez dut Gotzone Sagardui entzun horri buruzko aiderazpenak egiten. Proiekturen baten aurkezten bai ikusi dudala, eta ziur aurki beste inaugurazioren batean ere ikusiko dudala. Ez digute inolako jarraibiderik eman. Ez dute neurri berririk hartu. Ziurrenik asteburua hurbildu ahala deitu egingo naute galdetzeko Etengabeko Arreta Guneren batean lagundu dezakedan; betikoa, hutsuneak bete. Egun batetik besterako konponbideak”.



# elkarrizketa

**“Gure 3 urteko alaba ere hil zen mediku batek larrialdietan ikusi gabe”**



**CAMILA LOPES**ek ETA **UNAI ORDOÑEZ**ek OROITZAPEN TXARRAK BERPIZTU DITUZTE 42 URTEKO LAUDIOAR BAT LARRIALDIETAN HIL ONDOREN. IZAN ERE, HELENA, BERE 3 URTEKO ALABA, 2020AN HIL ZEN ETA, BESTEAK BESTE, ETENGABEKO ARRETA GUNEAN EZ ZUEN MEDIKU BATEN DIAGNOSTIKORIK JASO.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

**2020ko azaroaren 15ean gertakari lazgarria bizi izan zenuten, nola hasi zen?**

Dena ostegun batean hasi zen. COVID garaia zen eta PCR proba egin ostean, pediatarra jo genuen. Hau ere ez genuen ulertzen, ze positibo emanez gero, ez zuten artatu behar? Dena den, negatiboa izan zen emaitza eta medikuari azaldu genion umeak esaten zuela mina zuela sabelean.

Medikuak aztertu zuen, txisaren proba ere egin zion eta bere ustez, ez zen, inondik inora, apendicitisa. Burutik kentzeko esan zigun. Apendicitisa oso mingarria da eta inor ezin da zutunik mantendu. Aldiz, Helenak jolasten zuen, minduta egon arren. Medikuak pilota bota zion eta haurra korrika joan zen eta jaso zuen. Ondorioz, pediatarra baztertu zuen guztiz aukera hori. Txis proba ere negatiboa izan zen eta bere ustez, mimoak nahi ziotuen, besterik gabe.

Gauean, ordea, sukarrak gora egin zuen. Larrialdietara joan ginen, anbulatoriora. Ez zegoen medikurik, bakarrik erizaina. Erizain batek galdetu zigun zergatik ez genion Paracetamola eman.

**“Larrialdi zerbitzuetara joan ginenean ez zegoen medikurik, bakarrik erizain bat eta esan zigun Paracetamola emateko”**

Erizainak berak esan zigun Paracetamola emateko eta sukarra jaitsiz gero, ez joateko ospitaleko larrialdietara. Aldiz, sukarrak gora egiten bazuen, ospitaleko larrialdietara jotzeko.

**Paracetamola eman zenioten?**

Bai, eta sukarra jaitsi zen. Gero pediatarra deitu zidan telefonoz eta erantzun nion tripako mina zuela esaten zuela, eta ez zuela ezer jan nahi. Telefonoz medikuak aipatu zidan agian kakak zituela eta supositorioa jartzeko. Larunbatean supositorioa jarri eta kaka egin zuen.

Gaueko ordu txikitik botaka hasi zen umea. Botatzen zuena beltza zen eta oso goibel zegoen. Korrika atera ginen eta autoz ospitalera jo genuen, baina bidean hil zen. Apendicitisa peritonitis bilakatu zen.

**Zer gertatu zen gero?**

Medikuak deitu ninduen gero, astelehenean. Hain zuzen, hitzordua genuen berarekin. Esan zidan izugarri sentitzen zuela eta autopsia heldu bezain pronto berarekin elkartzeko, azalduko zidala zer gertatu zen. Edonola ere, ni blokeatuta nengoan eta ez nuen ezta ulertzen zer esaten zidan.



## elkarrizketa

### Larrialdietan mediku baten arretra jaso ez izanagatik sakaketa jartzea baloratu zenuten?

Bai, eta abokatuak galdetu zigun lehenengo gauza izan zen ea psikologikoki prest geunden prozesuari aurre egiteko. Su-frimendu psikologiko izugarria izango zela ziurtatu zigun. Osakidetzak abokatu onenak zituela eta medikuak COVID protokoloa jarraitu zuela aipatu zigun. Printzipioz, Osakidetza dena zuen bere alde.

### Helenaren heriotzak eragina izan du anbulatorioan?

Bai, ama batek aipatu zidan antzeko egoera gertatu zela. Ume txiki bat nire alabaren sintoma berekin heldu zen eta pediatrak —beste batek— berehala bidali zuela ospitalera. Larrialdietan plaka bat egin zioten eta apendicitisa zuen berak ere. Berehala ebakuntza egin zioten.

### Laudioko larrialdietan gertatutako heriotzak eragina izan du zuengan?

Bai, bizitzak dira. Hau gelditu behar da. Medikuak beharrezkoak dira. Ume batekin joango zara eta ez da egongo? Davidi gertatutakoa pasako zaizu?

Umeei gertatzen zaiena aintzat hartu behar da. Esaten badu buruko edo tripako mina duela, azterketa medikuak egitea beharrezkoa da. Ez bazaio ezer gertatzen, bikain, baina probak egin ostean ziurtatu dezatela.





# herriz herri

## Artziniega

### Eguzki plakak jarri nahi dituzte eskolako, udal pilotalekuko eta kiroldegiko teilatuetan

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Udal eraikinetan eguzki plakak jartzeko apustua egin nahi du aurtien Artziniegako Udalak. Horretarako, 36.700 euroko diru-laguntza jaso berri du tokiko erakundeak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren partetik. Diru horren bidez, Arteko Gure Ama hezkuntza zentroan jarri-

ko dituzte panelak. Udan egingo dituzte horretarako lanak, klaserikez dagoela probestuz.

Hala ere, harago joan nahiko luke tokiko erakundeak, beste kokaleku batzuetan (frontoian eta kiroldegian) ere mota horretako azpiegiturak aurtien jarri daitezkeen aztertuz, "proiektu bakoitzaren proposamenak eta aprobetxamenduak aztertutxo ondoren".

#### Udal aurrekontuak prest

Udalak abendu amaieran onartu zuen 2024rako aurrekontua, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. 2.109.328 euro baliatuko ditu guztira tokiko erakundeak.

Nabarmendu dutenez, ez dute inbertsio berririk egitea aurreikusten, baina jada abian dauden hainbat obra amaitzea espero dute.

HAUR ETA FAMILLIENTZAKO  
**MOZORRO TRUKE AZOKA**  
URTARRILAK 27  
17:00ETAN FAKTORIAN

EKARRI ERABILTZEN EZ DITUZUN MOZORROAK EDO MOZORRATZEKO ERABILGARRIAK IZAN DAITEZKEEN OSAGARRIAK ETA ELKARREN ARTEAN TRUKATUKO DITUGU!

OHARRA: EGUNEAN BERTAN MOZORROAK ENTREGATZEKO AUKERA DAGOEN ARREN, NAHI IZANEZ GERO, MOZORROAK ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16:30ETATIK 20:30ETARA ENTREGATU AHAL DIRA FAKTORIAN.

KOKORIKO  
FAKTORIA

## Laudio

### “Txinparta berriak sortzeko” jardunaldi politikoak egingo dituzte asteburuan



Txao titis kolektiboak parte hartuko du jardunaldietan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

“Txinpartaktikiak dira, ez dute asko irauten, baina une egokian sortzen badira, sua piztu dezakete. Eta suak, erre egiten du, baina baita berotu ere, eta, toki eta momentu egokian pizten bada, bidea argitzeko ere balio dezake”.

Azalpen horrekin aurkeztu dituzte datorren asteburuan Laudioko Orbeo Etxean egingo diren Jardunaldi Politikoak. Hain zuzen, Laudion “txinparta eta su berrien sorrera sustatzea” izango da ekimenaren xede nagusia, eta bi eguneko egitaraua atondu dute horretarako.

#### Bi eguneko egitaraua

Larunbat goizean egingo dute lehen mahaingurua. Laudio eta Aiaraldeko okupazio eta autogestio esperientziak izango dituzte hizpide, mugimendu horietan azken hamarkadetan aritu diren hainbat kideren eskutik.

Ondoren, bazkaltzeko aukera egongo da eta, bazkalosteko bingo musikatuaren ondoren, bi solasaldirekin beteko dute arratsaldea. Alde batetik, Txao Titis kolektiboko kideek hartuko dute hitza.

Iaz sortu zen kolektibo hori, mastektomia egin nahi duen Laudioko pertsona transbati ebakuntza hori egiteko dirua biltzen laguntzeko. Hain zuzen, “gorputz disidentek militantzian” izango da eskainiko dute mahainguruaren ardatza.

Jarraian, kanpotik bertaratutako gonbidatu batzuek hartuko dute hitza: Hego Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarekoek, hain zuzen. Eragile hori ere iaz sortu zuten hainbat etxebizitza sindikatu eta antzeko talderen artean, eta euren borroken nondik norakoek berri emango dute Orbeo Etxean.

Eguna amaitzeko, musikaz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek, Gadugi taldearen raparekin eta DJ Baka4ren musika-rekin.

Igandean ere eskualdetik kanpoko jendea bertaratuko da jardunaldietan hitza hartuz. 12:00etan hasiko da *Krisi ekosoziala, desazkundera eta alternatibak* solasaldia, Sukar Horia talde ekologistako eta Otxantegi Herri Lurreko kideen eskutik. Bazkalostean, aldiz, Laudiora begira jarriko dira bertaratutakoak, asanblada irekia egingo baitute herrian garatu daitezkeen proiektu edo egitasmoen inguruan hausnartzeko.



## Urduña

# Hutsik dauden orubeei zergak igo dizkiete Urduñan, “eraikuntza sustatzeko”



Alde Zaharrea orube huts ugari daudela aipatu du alkateak. Aiaraldea.eus

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Aldaketak egin ditu Urduñako Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ). Hutsik dauden orubeei gaineko presio fiskala handitu dutokiko erakundeak, %0,362ko karga tasa ezarriz, industriako lursailen dutenarekin parekatuz.

Modu horretan, hutsik dauden lurasailen eraikinak eraikitzea sustatu nahi du Udalak, etxebizitzak, besteak beste. Hala azaldu zion Iker Santocildes Perez alkateak Aiaraldea Komunikabideari, urte amaie-

ran eginiko elkarrizketan. Gobernuaren arabera, hainbat orube hutsik daude hiriko Alde Zaharrean, ez dute itxura onik ematen turismoari begira, eta beste zeregin batzuetarako baliatu beharko lirakeke, etxebizitzak eraikitzeko kasu.

## Hobariak

Hala ere, hainbat hobari ere izango ditu OHZk. Zergaren erdia ordaindu beharko dute eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko azpiegiturak dituzten higiezinak, instalazioa egin eta hurrengo bost urteetan. Eraikinen Energia Ziurtagiria

duten azpiegiturak ere deskontua izango dute, eta baita urteko errenta 40.000 eurotik beherakoa duten familiek ere. Zehazki, %90ko hobaria ezarriko zaie 20.000 euro baino gutxiago jasotzen dituzten sendiei, %50koa 30.000 eurotik beherakoei eta %25koa 40.000 eurotara iristen ez direnei.

## Autoen zergetan ere hobariak

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan ere ezarriko dituzte hobariak. Udalak zehaztu duenez, hobaria bost urtera mugatuko da, “lehengomatrikulaziotik hasita”.

## BABESTUTAKO EDUKIA

# “Enpresa handien fatxadak eta beirateak garbitzen espezializatuko gara orain”

**MEL SIS FERNANDEZ** MEL LIMPIEZAS ENPRESA SORTU ZUEN DUELA BI URTE. GARBIKETA ENPRESAK BURUTZEN DITUEN LANAK ETA ETORKIZUNENKOA ERRONKAK ALETU DITU.

## Nola sortu zenuen Mel Limpiezas enpresa?

Duela bi urte beste lan bat neukan, betse enpresa batean, baina ez nengoen gustura. Hori dela eta nire kabuz negozioa hastea erabaki nuen, eta 2021eko urtarrilean ekin nion lanari. Ezin naiz kexatu. Jende nahikotxok ezagutzen nau herrian. Hasiera gogorra izan zen, baina ahaztuta asko laguntzen du. Sare sozialek ere bultzada eman didate, Instagramari esker asko zabaldu gara.

## Nolako lanak burutzen dituzue?

Hasieran denetarik egiten genuen: etxeak, garbiketa orokorrak... Obren amaierako garbiketarako ere egiten genituen. Gaur egun dugun lan gehiena atarian, bulegoen eta garajeen

garbiketara datza. Kristalaren garbiketara ere espezializatu gara azken aldian. Makina berri batzuk eskuratu ditugu kristalaren eta fatxaden garbiketarako. Makina bereziak dira, ur-ozmotizatu erabiltzen dutenak; prozesu guztiz ekologikoa da, ura bakarrik erabiltzen dute. Zerbitzua beirate handiak dituzten enpresei dago zuzendua batez ere, horretan espezializatu nahi dut dagoen hilabeteetan.

## Nola antolatzen zarete lana aurrera ateratzeko?

Geroz eta egituratuagoa dugu egunerokoa. Niri gainera asko gustatzen zait herritzea, beti nago lana jasangarriagoa egiteko teknika eta berrikuntzen bila. Duela gutxi ere gimnasioetako gomazko zorua garbitzeko makina eskuratu nuen, horre-

tan espezializatzea gustatuko litzaidake ere; eta, gaur egun betetzen ditudan lanak burutzeko lan-postu berriak sortzea.

## Zein herritan egiten duzue lan?

Orozko, Laudio eta Amurrio artean nagusiki. Noizbait Urduñan ere egin dut lan. Aiaraldea eskualdea hartzen dut nire baitan oro har. Ez dut urrunagora hedatu nahi, hemen lana soberan dago.

Bi urte hauetan, kanpoko garbiketa enpresa askorekin egin dut topo: Kantabriakoak, Basaurikoak... Askok harritu nau. Izan ere, uste dut eskualdean badaudela lan hori bete dezaketen tokiko garbiketa enpresak. Hori da nire asmoa, eskualdeko bezeroen konfiantza irabaztea, kalitatezko lana eginez.



mellimpiezas@gmail.com  
@mellimpiezas / 747 457 046



www.mellimpiezas.com





# herriz herri

## Amurrio

Amurrioko Udalarri udal pilotalekuaren, Mendiko ikastetxeko frontoiaren eta Refor kirol gunearen mantenu, kontrol eta garbiketaren esleipena etetea exijitu zaio.

# Udal kirol guneen lizitazioa bertan behera uztea eskatu dute sindikatuek eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Amurrioko Udalean ordezkari-tza duten LAB, ELA eta ESAN sindikatuek eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak adierazpen publikoak egin dituzte tokiko erakundeari eskatzeko lizitazio berria egitea udal kirol guneen kontrol, kudeaketa eta garbiketarako.

Izan ere, langile erakundeak eta azpikontratek bilerak egin dituzte eta hurrengo salatu dute: "Amurrioko Udalak, alkatetzaren dekretu bidez, aipatutako kirol instalazio horien kontrol, mantenu eta garbiketa lanak egiteko soilik sei hilabeterako kontratazio prozedura bat argitaratu du".

Lanean arituko liratekeen langileei euskararen inolako ezagutzarik ez eskatzea (azken kontratazioko pleguetan 2HE eskatzen zitzaien gutxienez langileen erdiari eta uneoro euskaldun bat egotea jendea euskaraz artatzeko) eta soilik idatzizko mezuak jartzea elebitan, salatu dute.

Enpresek eskainiko duten zerbitzua baloratzeko puntuen %75 prezioa merketzeari esleituko zaio, eta beste %20 langileek doako lan orduak eskaintzeari (gainerako %5, aldiz, berdintasun irizpideei).

### Autonomo faltsuak?

Horrez gain, sindikatuek azpimarratu dute azpiegitura horietako langileek Udala salatu dutela, euren ustez, autonomo faltsuak direlako. Otsailean bi aldeen arteko akordioa lortzeko epea amaituko dela aintzat hartuta, langile erakundearen iritzia da zurreragoa litzateke laitarrota eta egungo kontratua luzatzea, badaezpada.

"Zergatik hau orain? Ez al da izango, bertako langileen ustez eurei dagokien eskubide bat epaitegietara eramateagatik zigor bat eta bide hori jorratzea inoiz pentsatu dutenentzako abisua? Komiteak uste du, epaileak langile hauei arrazoi emanaz gero, Udalean badirela autonomo bezala kontrata-



El Refor kirolguneako azpiegiturak artxibo irudi batean. Amurrio Udala

tutako beste zerbitzu batzuk egoera berdinean egon daitezkeenak", adierazi dute LABek, ELAk eta ESANek.

### Euskaradunen eskubideak

Euskararena dasindikatuek zein Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak nabarmendu duten beste arrazoietako bat prozesua bertan behera uzteko.

Hain zuzen, biek argudiatu dute kirol azpiegituren erabiltzaile euskaradunen eskubideak ez direla bermatuko. Gaur egun indarrean dagoen kontratuan, aldiz, jasotzen da beti egon behar dela langile euskaradun bat.

Gainera, langile erakundeek eta Kontseiluak ziurtatu dute lizitazioaren ezaugarriak Amurrioko

Udalaren Euskara Planaren kontrakoak direla.

### Udalaren konpromisoa

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak azaldu du bere prentsa oharrean Arantzazu Saratxaga euskara zinegotziak konpromisoa hartu zuela bilera batean hurrengo esleipenean euskaradunen eskubideak aintzat hartzeko.

Ordea, euskalgintzako eragileak uste du hori ez dela nahikoa eta aipatu dute, kontratua sei hilabeterako izanda ere, legez luzatu daitekeela.

Beste argudio hauek ere eman ditu Kontseiluak: "Bigarrenik, hizkuntza eskubideen alorrean salbuespenak egitea ez delako bidea euskararen normalizazioa lortze-

**Langileen egoera eta euskaradunen eskubideak dira esleipenak bertan behera uzteko plazaratu dituzten arrazoi nagusiak**

ko, herritarren eskubideak sakrifikatuz gainera. Hirugarrena, bide bat irekitzen delako hizkuntza eskakizunak baztertzeko, epaileen oldarraldiaren aurrean herritarrek mobilizatzen ari diren tesuinguru batean gainera. Bosgarrena, gure hizkuntza eta euskal hiztunak ezin garelako beti azkenak beste behar batzuen aitzakipean. Seigarrena, harrera lanak egingo dituzten langileez ari gara eta artatu beharko duten publikoaren gehiengo bat herriko ume eta gazteek osatzen dute, D ereduan hezitakoak eta euskaldunak. Eta zazpigarrena, Udalak bere buruari ezarritako araudi bat betetzenez duenean, Euskara Plana kasu, zertan geratzen da araudi horren indarra eta balioa?"



## Aiaraldea

Atzerapenak konpontzeko neurriak aurkeztu ditu Jose Antonio Santano Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Estatu Idazkariak. C-3 linean, gainera, 9,7 milioi euroko inbertsioa iragarri du.

# Atzerapenak konpontzeko, Renfek 3 minututan luzatuko du Urduña eta Bilbo arteko bidaia



Atzerapenak dituen tren bat artxibo irudi batean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Jose Antonio Santano Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Estatu Idazkariak adierazpenak egin zituen urtarrilaren 15ean Aiaraldea zeharkatzen duen C-3 Renfeko zerbitzuari buruz. Espainiako Gobernuko ordezkariak azaldu zuen, Eusko Jaurlaritzaren eskaerari jarraiki, eskaintza handituko dutela eta

Bilbo-Urduña ibilbidea egingo duten 74 tren egongo direla. Horrez gain, beste 56 trenek lotuko dute Laudio eta Bilbo eta beste zortzi Civi —geltoki erabilietan soilik utziko dituztenak bidaia-riak— ere egongo dira. Aldaketa horien helburua da 05:00etik 23:30ak arte tren bat egotea hamabost minuturo.

**Atzerapenen aurkako plana**  
Bestalde, Santanok aurreratu

**Puntueltasuna bermatzeko plana abiatu eta ordutegiak moldatuko dituzte bidaiak hiru minutu gehiago luzatuz**

du puntueltasuna bermatzeko plana abiatuko dutela, eta ordutegiak moldatuko dituztela fidagarriak izan daitezten. Hori bai, bidaiak hiru minutu gehiago luzatuko dira. Luzapen hori "azpiegituraren beharrei aurre egiteko" erabiliko dute.

Horrekin guztiarekin batera, Renfek 9,7 milioi euroko inbertsioa egikarrituko du; azpiegituraren elektrizitatea bermatzeko, LED argia instalatzeko, mar-

kesina berriak ezartzeko edota paperontziak eta bankuak aldatzeko. Santanoren adierazpenek, edonola ere, ez dute jende guztia konbentzitu, eta, esatearren, X/Twitter sare sozialean irekitako Bilboko Aldiriko Kaltetuen kontuak kritikatu du jadanik hamar eta hogei minuturo daudela trenak Urduña eta Bilbo lotzeko eta ziurtatu duten gauza bakarra dela bidaiak luzeagoak izango direla.

40.  
URTEURRENA

*Arabako*  
**BERTSOLARI  
TXAPELKETA**  
*3. Final laurdena* 2024

OTSAILAK 11, Igandea 17:30ean  
LAUDIO, Kasinoan



Iñaki  
Viñaspre  
Simon



Izar  
Mendiguren  
Cosgaya



Felipe  
Zelaieta  
Txurruka



Martin  
Abarrategi  
Sarrionandia



Asier  
Otamendi  
Alkorta



Unai  
Anda  
Delika

Gai-e-maila: [Oier Azkarraga Grajales](mailto:Oier.Azkarraga@Grajales.com)

[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba) - [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)



araba álava  
foru aldundia diputación foral

LABORAL  
40 años

Vital  
FUNDACIÓN FUNDACIÓN

urtepa  
EIAKILE

artepan

Mendia  
Optika

ESKOLA INKUBADURA  
CORREO VASCO

LAUDIO  
UDALA  
AYUNTAMIENTO  
DE LAUDIO

AIA  
RAL  
DEA



# herriz herri

## Aiaraldea

Artziniega, Aiara, Urduña, Amurrio, Laudio, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo udalerriak bisitatuko ditu euskararen aldeko ekimenak, 6:30etik 13:00etara bitartean. Laudion Dolumin Barikuarekin bat egingo du ekimenak.

# Martxoaren 22an iritsiko da Korrika Aiaraldera



Martxoaren 22an zeharkatuko du Korrikak Aiaraldea, duela bi urte Amurrion abiatu zen ekimena. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

### Testua Txabi Alvarado Bañares

Iragarri egin dute zein izango den Korrikak egingo duen ibilbidea. Euskararen aldeko ekimena martxoaren 22an iritsiko da Aiaraldera, Irunetikatera eta zortzi egunera, eta eskualdeko udalerrri gehienak bisitatuko ditu 6:25etik 13:05era bitartean.

Aiaraldeko herri txiki ugari bisitatuko ditu Korrikak. Gainera, nabarmentzekoa da Laudion ekimenak Dolumin Barikuarekin bat egingo duela, 2017an bezala.

### Korrika aplikazioa

Aurtengo nobedadeen artean, Korrikaren aplikazioan

eginikoak nabarmendu dituzte antolatzaileek. Korrika Laguntzaile txartela txertatu dute aplikazioan, eta astero egingo dituzte zozketak euskararen aldeko ekimenaren babesleen artean.

Ibilbideari dagokionez, Korrika zuzenean jarraitzeko aukera emango du aplikazioak, furgonetak izango duen geolokalizazioaren bidez. Modu horretan, erabiltzaileek aukera izango dute Korrika aurreratuta edo atzeratuta datorren ikusteko.

### Aurkezpenak herriz herri

Behin ibilbidea publiko egin da, Korrikaren antolakuntza nburu-belarri sartzeko unea da. Jadanik prestaketak abiatu

## Aiaraldea Komunikabideak atari berezia atondu du Korrikaren jarraipena egiteko, bertan ikusi daitezke aurreko edizioetako argazki eta bideoak

dituzte eskualdeko herrietan, eta, gauzak horrela, aurkezpenak egingo dituzte Laudion eta Arrankudiaga-Zollon.

Laudion urtarrilaren 25ean egingo dute aurkezpena, 19:30ean erabilera anitzeko udal gelan, udaletxearen alboan. Berbots Euskaltegiak aurtengo Korrikaren mezua erri emango du. Horrez gain, edizio honek nor omen duko duen aipatuko dute, baita Laudioko ibilbidea ere. Azkenik, Korrika Kulturalari buruzko ekarpenak jasotzeko asmoa daukate. Hurrengo egunean, urtarrilaren 26an, ostirala, bilteko deia zabaldu du Arrankudiaga-Zolloko Korrikako batzordeak. 19:30ean izango da hitzordua Gizarte Etxean.



## Ibilbidea

Hau da Korrika 23k martxoaren 22an Aiaraldean barrena jarraituko duen ibilbidea, herriz herri eta orduz ordu:



**Artziniega** (Bizkaia-Araba mugatik) 6:25  
**Lanteno** (errepideko zubitik) 7:17  
**Menagarai** (errepide zaharretik) 7:23  
**Ibague** (Etxaurren Ikastolatik) 7:43  
**Arespalditza** 7:56  
**Izoria** 8:15  
**Belandia** 8:28  
**Lendoñobeiti** 8:54  
**Urduña** (Antiguatik) 9:14  
**Saratxo** 9:53  
**Amurrio** (Aldaiturriagatik) 10:12  
**Luiaondo** 11:04  
**Laudio** (AP-625tik) 11:21  
**Areta** 12:24  
**Arakaldo** 12:35  
**Arrankudiaga** 12:40



## babestutako edukia

# Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia



Igogailuen mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. **BERTAKO**

Igogailuen instalazio- eta mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa moduan. Dena den, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da.



Pieza guztiak konpondu eta ordezkatzeko Bertakok, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. **BERTAKO**

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze-lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, igogailu marka guztietako mantentze-lanak egiten ditu Bertakok. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzeko, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

### Zerbitzu gardena

"Berezia da gure enpresa, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdin", dio Bertakoko Iban Sanchezek, Bertako enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaini nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostean, gustuko ez zizutenak albo batera utzi eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitza komunitateei, eskaintzen hasi ziren.

**24 orduko benetako zerbitzua**

Marka askotariko igogailuen mantentze-lanak -bati bat-; igogailuen instalazioa; edota zaharkituta dauden igogailuen ordezkariak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Eta hori guztia, ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda. Bertakok bezeroekin -etxebizitza komunitateekin- sinatzen dituen kontratuetan, "24 orduko benetako mantentze-zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Iraunkortasun klausulak edota bestelako zigor klausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze-zerbitzuak eskaini bai, baina, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzu ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izate-

ra pasa da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea osatzen du Bertakok.

### Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakeen hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu hasi ginen zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen. Eta gaur da eguna galtzen ditugun bezero gutxiek eskaintzen dutena zerbitzu hori 65-75 eurotan". Sanchezek dio konpetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

### Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hitzunik; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskarare-

## Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Gaur egungo teknologiak darabiltza Bertako enpresak, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.

Bertakok eskuko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak bestegertukogremio batzuekin harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzaren komunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan



Bertako aplikazioa. **BERTAKO**

jartzea", dio Sanchezek.

### Lehentasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehentasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

kin konprometitu gaudete eta ahal dugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzearren, Tuteran aurrekontuak eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskararekiko: Korrikaren babeste izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

### Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, Bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby edota Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, emakumearen parte hartzea kirolean eta kirol egokitua

sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeen atzean dauden pertsonak, jeneralean, izan ohi dira pertsona inplikatuak, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste aberastasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzen den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste balio batzuk, haren bat datozenak, dituen enpresa garela ikustea".

### Informazio gehiagorako:

- Araba 945 712 822
- Gipuzkoa 943 903 450
- Bizkaia 946 523 935
- Nafarroa 848 870 917

www.bertako.eus



# elkarrizketa

“Paisaiaren eta garapen ekonomikoaren arteko gatazka landu nahi nuen”



**TXANI RODRIGUEZ** (Laudio, 1977) IDAZLEAK LA SECA ELEBERRIA ARGITARATU BERRI DU ETA AURKEZPEN BIRAREN ERDIAN DAGO. LAUDION HASTEN BADA ERE, ANDALUZIARA BIDAIA PROPOSATZEN DU LIBURUAK.



Testua **Aitor Aspuru Saez**  
Argazkia **Aimar Gutierrez Bidarte**

## La seca izenburuak esanahi bikoitza dauka, ezta?

Bai. Alde batetik, bada artelatzen daukaten gaixotasuna. Zuhaitzak lehortzen dira eta mehatxu handia da Malagan eta Cadizen dauden bi eskualdetan.

Bestalde, protagonistaren izaera nahiko lehorra da, edo itxura hori ematen du. Bera, bide batez, Laudiokoa da eta lehenengo orrian agertzen da herria.

## Liburu honetan agertzen dira aurretik landutako zenbait gai, eta horietako bat da zuhaitzen isurriteak herrira eramaten duen gatazka.

Gatazkak ingurumena mantentzeko eta garapen ekonomiko bermatzeko ideiekin zerikusia dauka. Zehazki, artelatzen gaixorik daudenez, lanbidea galduko dutela ikusten dute batzuek eta beste-lako irtenbide ekonomikoak bilatzen dituzte.

Batek, adibidez, aguakateak landatzen ditu. Dakigunez, oso kaltegarriak dira, ur asko kontsumitzen dutelako, ur gehiegi ez dagoen leku batean. Malagan eta kostalde osoan aguakateak landatu dituzte eta eragina oso txarra izan da.

Beste pertsonaia horrek erabaki hori hartzen duenean, protagonistak ez du gogoko, baina guztiok ditugu kontraesanak. Esaterako, aguakateak jaten baditugu, norbaitek landatu behar ditu eta ez diegu gatazka etikoei erreparatzen.

Paisaia eta garapen ekonomikoaren arteko gatazka hori landu nahi nuen, baina ez bakarrik aguakateekin, hainbat gai jartzen ditut mahaigainean.

## Ez da lehen aldia, aurreko bi eleberrietan agertu da.

Bai, *Los últimos románticos*-en, adibidez, eukaliptoak aipatzen zen. Dena den, eleberri oso ezberdinak dira, testurak oso bestelakoak dira. Aurrekoan zelulosa ekoizteko afera aipatzen nuen. Izan ere, guztiok kontsumitzen dugu zelulosa eta kritikatzeko dugu eukaliptoak, baina ez dugu ezer aldatzen. Oso harroputzak gara batzuetan aldaketak eskatzeko orduan.

Mendira goaz eta edonori esaten diogu zer egin, baina gu ez gara aldatzen.

## Zaintzak ere badira eleberriaren gai bat.

Bai, zaintzak oso garrantzitsuak dira. Eleberria gertatzen da uda batean, bidaia bat da. Hilabete

inguruko kontakizuna da. Protagonista nekatuta eta etzituta dago bere ama zaintzen egon delako. Bera bakarrik dagoenez, hainbat jenderi gertatzen zaion moduan, bere gibelean hartu behar du dena. Aldiz, badago beste pertsonaia bat, Montero. Bere aitak beharko lituzke zaintzak, baina beste era batean moldatzen da. Oso muturreko ereduak dira, bata gizonezkoa eta bestea emakumezkoa.

## Beste liburu batzuetan, Agoston, adibidez, agertu da identitate bikoitza —andaluziarra eta euskalduna— duen protagonista. Zein neurrian hausnartu duzu horri buruz?

Identitatearen gaia nire baitan dago. Maiz agertzen da, nire begiradaren parte da. Badago hausnarketa bat, ez espreski, baina bai. Migrazioaren seme-alabok bakar-dade puntu sakon bat dugu. Ez dugu familia sarea: izeko, lehen-gusinak... eta nabaritzen da.

Agosto idatzi nuenean aldarrikatu nahi nuen pertsona horien ekarpena eta, besteak beste, hausnartu getifikazioari buruz. Iruditzen zitzaidan pertsona horiek ez zutela protagonismo literaturan, hemen egongo ez balira bezala. Horretan jarraitzen dut, baina ez aldarrikatzen, nire baitan naturalizatu dago.

Azken eleberri honek abiaputu autobiografikoa dauka, baina hori besterik ez. Gainerakoa fikzioa da.

## Osagai autobiografikoa aipatu duzula, zein neurrian bizi izan duzu zuk zuhaitzei lotutako ogibide hori?

Gaixotasunak eta klima aldaketak egoera kezkarria sortu dute. Artzelatzetatik ateratzen da kortxoa eta ogibide dutenak kortxeroak dira. Nire aitite eta nire aita, Laudiora etorri baino lehen, kortxeroak izan ziren. Lehengusinak, osabak, lagunak... ere kortxeroak dira.

Nahikotxo ezagutzen dut eta oso plastika polita dauka ogibideak. Kortxeroak zuhaitzaren alde garaietara igotzen dira aizkorarekin lan egiteko. Soinua eta usaina... baso baten barruan egiten da eta oso sentzuala iruditu zitzaidan literaturaren ikuspuntutik.

## Aurkezpen prozesuan buru-belarri sartuta zaude, zenbat iraungo du?

Uste dut laburra izango dela. Jarraituko dut, baina ez bizitasun honekin. Alde batetik polita da, zorte handia daukagu. Idazleok eta musikariok hedabideen arreta behar dugu eta.

Bestalde, oso nekagarria da, gure lanarekin jarraitu behar baitugu



## elkarrizketa

eta bikoizten ditugu lanak. Neka-garria, baina pozgarria da.

**Idazle profesionala zara, baina horrek ez du esan nahi zure diru iturri nagusiak bide horretatik heltzea. Zer egin behar du idazle batek bizirauteko?**

Bartzelonako idazketa eskolan ematen ditut klaseak. Radio Euskadiko eta El Correoko kolaboratzailea naiz. Horrez gain, klaseak eskaintzen ditut astero Bilbon. Hamaika gauza egiten ditut autonomia eta free lance naizelako. Horrek askatasuna ematen dit.

Kontuan hartu behar da liburuek dirua ematen dutela, baina bere neurrian eta eleberri hauek literarioak dira, helburua ez da best seller izatea. Horregatik, hain zuzen, idazle izan nahi duenarentzat nire aholkua da beste lan bat eskuratzea. Diru nahikoa badauka ez, baina ni bezala, ez bada diruduna, bai. Ez da ogibide oso errentagarria eta atarremendua ez da finkoa.

**Hain zuzen ere, eleberria idazteko ideia beste lan bat egiten zenuen bitartean izan zenuen.**

Bai, kazetaritza lan bat egiten nuen bitartean. La Minerva aldizkariak eskatu zidan erreportajea

**“Migrazioaren seme-alabok bakardade puntu sakon bat dugu. Ez dugu familia sarea: lehengusinak, izeko... eta nabaritzen da”**

idaztea eta berehala bururatu zitzaidan artelatzei buruz egitea. Artelatzak eta parke natural hori niretzat ziren leku mitikoa, baina erreportajea eta elkarrizketak egin bitartean konturatu nintzen lurralde horretan ere gatazkak zeudela eta alkimia bezala, mitikoa literarioa bilakatu zen. Erabaki nuen mundu horri buruz zerbait idatzi behar nuela.

Eta jakina, artelatzak, klima aldaketa eta hori guztia oso garrantzitsuak dira, baina trama bat garatu nuen, pertsonaiak...

**Pertsonaia bat protagonista-ren bikote kidea izan da. Nora jo duzu generoaren aldetik?**

Literatura garaikidea da. Uneren batean beldurgarria den elementuren bat agertzen da. Intriga puntua ere badago.

**Ofizios kazetaria zara, baina ez zure belaunaldiko bakarra. Ander Izagirre, Iker Rioja...**

Uste dut bakoitza bere kaxara aritzen dela, baina harremana oso ona dut Ander Izagirrerekin, Goizalde Landabasorekin, Irati Jimenezekin, Katixa Agirrerekin, Karmele Jaiorekin... Hala ere, guztiok egiten ditugu gauza ezberdinak eta gure arteko harremana bikaina da.

**“Nire aitite eta nire aita, Laudiora etorri baino lehen, kortxeroak izan ziren. Lehengusinak, osabak, lagunak... ere kortxeroak dira”**

**Zer nolako harrera da izan du eleberriak?**

Agertu zen urtarrilaren 17an, hortaz, denbora gutxi darama liburudendetan. Gure lagunek esan didate gogoko izan dutela eta pozik nago.

Dena den, beti esaten dut litekeena dela pertsona batek ez badu gogoko, ezer ez esatea. Nik, oro har, iruzkin positiboak baino ez ditut entzuten eta kritikak orain hasiko dira ateratzen. Hurrengo astean edo.

**Nola bizitzen duzu kritiken agerpena?**

Nik nahiago ditut kritika onak, jakina, baina txarrak badira filosofoarekin hartzen ditut. Egia da *Los últimos románticos* liburuak oso kritika onak izan zituela.

Duela gutxi irakurri dut egin zidaten elkarrizketa bat eta sarre-ran kazetariak ondo idatzi du eleberriari buruz. Hala ere, txarrak balira edo ez horren onak... ba horrelakoa da ogibidea eta ezagutzen dut. Ezin dut ezer esan.

Zorionez, kritika txarrak ez ditut jaso. Irakurle klub batean, Oñatin gizon batek esan zidan ni entzun eta gero berriro irakurriko zuela, lehenengo aldian ez zuelako bate-re gogoko izan. Grazia handiarekin esan zidan.





# kultura

## 13 talde “gazte zein beteranok” joko dute Orozkorocken maiatzaren 17 eta 18an, erabat doan



Abenduaren 30ean egin zuten kartela jendarteratzeko ekitaldia. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Ezberdina izango da aurtengo Orozkorock jaialdia. Hala aurreratu zuten jaialdiaren antolatzaileek Donibane Aretoan eginiko aurkezpenean. Maiatzaren 17 eta 18an egingo dute ekimena, eta kolpe bakarrean jakinarazi dituzte oholtzara igoko diren hamaihiru taldeak.

Alde batetik, Sex Museum eta The Capaces talde beterranoak egongo dira, euren berrogei eta 25 urteko ibilbideak errepasatzeko, hurrenez hurren. Bermeoko Etxekalte taldeak “post hardcore eta doinu melodikoak” eramango ditu Orozkora, eta Gernikatik Feline gerturatuko da, “jaiari ukitu psikodeliko eta originala” emateko.

Ezezez bilbotarrak eta Toc mungiarrek ere batuko dira festara, euren estilo “berezko bezain originalekin”. “Grunge ukituak”, aldiz, Ginger taldeak jarriko ditu, eta bestelako estiloak entzuteko aukera ere egongo da: The Half Nelsons talde bizkaitarrak “country doinu amerikarrak” jorratuko ditu, Boogie Riders arrigorriagarrek bluesa taularatu dute eta Oñatiko Letagin taldeak “Eskandinaviako soi-

nu gogorak” eramango ditu jaialdira. Italiako ordezkari-tza ere egongo da, Micky Paiano musikariaren Micky & The Buzz taldearekin.

Horrez gain, eskualdeko sortzaileek ere izango dute presentzia Orozkorocken, oso belaunaldi ezberdinetako bi taldearekin. Alde batetik, BOTH talde gaztea arituko da ohol-tzan eta, bestetik, Lur talde mitikoa, kontzertu bakan batzuk eskaintzeko soilik batzen dena. Antolatzaileek nabarmendu dute “talde beterranoak eta gazteak” uztartu nahi izan dituztela kartelean. Dena den, nobedade nagusia ez da hori izango. Berrikuntza nagusia izango da jaialdia, lehen aldiz, erabat doakoa izango dela, eta bi kontzertugune ireki atonduko dituztela, Hegoaldeko zabalgunean bata eta Zubiaurreko plazan bestea. Aurreratu dutenez, laster eman go dute jaialdiaren gaineko informazio gehiago, Orozkorocken webgunean eta sare sozialetan. “Beste behin ere, herria musikaz eta jai-giroz bustiko dugu, eta beste behin ere gure inguruko musika-eszena eta Orozkoko kultura-jardura babesten jarraituko dugu”, aldarrikatuzuten ekimenaren aurkezpenean.

## Aiaraldeko sortzaile ugarik hartu dute parte Maria Riveroren bideoklip berrian

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Aiaraldekoa ez den arren, Maria Riverok harreman estua du eskualdearekin, eta horren seinale da plazaratu duen bideoklip berria. Luis Vil zinemagile amurriarrak zuzendu du ikus-entzunezkoa, Andere Morillo dantzaria agertzen da kamararen aurrean eta Ruben Ladron de Gebarak atera ditu drone bidezko irudiak.

Esaldien diktadura da kantaren ize-na, eta Riverok azaroan aurkeztutako *Lerro paraleloak* diskoan sartuta

dago. Bere bakarkako bigarren albuma da, eta hamabigarrena bere musika ibilbide osoan.

Mikel Etxaburu idazle ondarrutarraren *Ahaztu baino lehen, ama* poema-liburuan jasotzen den olerki zehatz batetik sortu du Riverok abestia. Hala azaldu du musikariak: “Hilabete asko konposatu ezinik eman ondoren, hutsik eta eskaintzeko doinu gehiago ez izatearen sentsazioarekin, *Esaldien diktadura* agertuzen. Egun baten pianoan eseri nintzen eta gogoratu nuen Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen, ama* poemaliburuairakurtzen aritu

nintzela egun batzuk lehenago. Ireki nuen eta gogoratu nintzen poema berezi bat zegoela, bilatu nuen... 71. orrialdea, hor zegoen. Melodia aspaldiateratzen ezzen moduan jariatzen, eta ia pentsatu gabe, diskoari bidea emango zion kantua konposatuta neukan”. Sortzailearen esanetan, oso berezia da kanta berarentzat. “Negar egin nuen hura konposatzen eta Jagoba Ormaetxearekin estudioan grabatzen, ez dakit zergatik, ez dago azalpen arrazional bat, baina abesti honek oso gutxitan gertatu zaidan bezala zeharkatzen nau”.

## AIARALDEKO URTEKARI FEMINISTA 2023

Eskuratu zure alea doan urtarrilak 31 arte

- Aretako Kultura Etxean
- Laudioko Kultura Etxean
- Amurrioko Kultura Etxean
- Okondoko Kultura Etxean
- Orozkoko Kultura Etxean
- Urduñako Alondegian
- Artziniegako udaletxean
- Aiaraoko udaletxean
- Arakaldoko udaletxean
- Arrankudiagako Gizarte Etxean



araba álava  
foru aldundia diputación foral



**babestutako edukia**

# NEGUA FAKTORIAN

## URTARRILA



**26, barikua**  
20:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**CANDIDO BESA ARDO DASTAKETA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 6€  
#ARDOGINTZA  
#ELIKADURABURUJABETZA



**27, zapatua**  
17:00 - Faktorian  
**MOZORRO TRUKE AZOKA** HELDU ZEIN HAURRENTZAT ETA **MOZORRO TAILERRA** HAURRENTZAT  
DOAN  
#INAUTERIAK  
#TRUKEA



**28, domeka**  
11:00 - Faktorian  
**0-3 URTE ESPAZIO LIBREA**  
DOAN  
#HAZKUNTZA



**28, domeka**  
18:00 - Faktorian  
**ENPLEGU ZORIONTSUAGO BAT**  
GABRIEL ARESTIREN KANTUAK ETA POEMAK EÑAUT ELORRIETA ETA IÑIGO ASTIZ (LAUDIO UDALAK ANTOLATUTA)  
DOAN  
#POESIA  
#MUSIKA



**09, barikua**  
20:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**ITXINAPEKO OKELAREN DASTAKETA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 6€  
#ELIKADURABURUJABETZA  
#ABELTZAINITZA



**12, astelehena**  
11:00-13:00 - Faktorian  
**INAUTERI LUDOTEKA**  
BAZKIDEEK DOAN / EZ-BAZKIDEEK 3€  
#INAUTERIAK  
#FAMILIA



**12, astelehena**  
18:00 - Faktorian  
**AMALURRA ESNATZEKO IPUIN KONTALARITZA MUSIKATUA**  
DOAN  
#IKUSKIZUNA  
#FAMILIA



**16, barikua**  
20:00 - Faktorian  
**TAROTEN MURGITZEN** MATXALEN ALDAITURRIAGAREKIN SOLASALDIA  
DOAN  
#KOMUNITATEA  
#EZAGUTZA



**17, zapatua**  
17:00-20:00 - Faktorian  
**DANTZASKE/ GORPUTZ ZIKLIKO TAILERRA**  
BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€  
#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAILTZAZIALEAK




**18, domeka**  
11:00-13:00 - Faktorian  
**0-3 URTE ESPAZIO LIBREA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€  
#HAZKUNTZA



**23, domeka**  
20:00 - Faktorian  
**ENTSEGU IREKIA/ BURBUILAK** ESKUALDEKO EMAKUME EZBERDINEN KOLABORAZIOAREKIN  
DOAN  
#MUSIKA



**24, zapatua**  
22:00 - Faktorian  
**KONTZERTUA/ ASSATA** ROCKA ETA FUNKA!  
BAZKIDEEK 6€ / EZ-BAZKIDEEK 8€  
#MUSIKA



**25, domeka**  
17:30-19:00 - Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK: 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)  
#ZIRKOA

## OTSAILA




**02, barikua**  
18:00 - Faktorian  
**BIZI HIZTEGI SOZIALAREN** ETA AIARALDEKO **EMAKUME ERREFERENTEEN MAPAREN** AURKEZPENA  
DOAN  
#FEMINISMOA  
#KULTURABERKOTASUNA



**02, barikua**  
20:00 - Faktorian  
**KONTZERTUA/ GARAZI ETA SALA**  
BORONDATEA  
#MUSIKA



**03, zapatua**  
17:00 - Faktorian  
**FAKTORIAKO 1º FUTBOLIN TXAPELKETA**  
GAZTE-GAZTEENTZAT  
DOAN  
#GAZTEGAZTEAK



**04, domeka**  
17:00 - Faktorian  
**DANTZASKE/ GORPUTZ ZIKLIKO SOLASALDIA**  
BORONDATEA  
#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAILTZAZIALEAK

## MARTXOA



**01, barikua**  
20:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**HABITATUTAKO PABILIOI BAT** BEÑAT SARATXAGA ARKITEKTOAREKIN SOLASEAN  
DOAN  
#ARKITEKTURA



**02, zapatua**  
17:00-19:30 - Faktorian  
**MAHAI JOLASEN TOPAKETA**  
GAZTE-GAZTEENTZAT  
DOAN  
#GAZTEGAZTEAK  
#JOLASAK



**03, domeka**  
17:30-19:00 - Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK: 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)  
#ZIRKOA



**08, barikua**  
**EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA.** GORA MARTXOAK 8!  
#FEMINISMOA



**10, domeka**  
11:00-13:00 - Faktorian  
**0-3 URTE ESPAZIO LIBREA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€  
#HAZKUNTZA



**10, domeka**  
17:00 - Faktorian  
**DANTZASKE/ GORPUTZ POLARIZATUA SOLASALDIA**  
BORONDATEA  
#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAILTZAZIALEAK



**15, barikua**  
19:00 - Faktorian  
**FAKTORIATXIKI GAUA** HAURRENTZAKO GAU-EGONALDIA  
DOAN  
#HAZKUNTZA  
#HAURREFAKTORIA



**16, zapatua**  
17:00 - Faktorian  
**DANTZASKE/ GORPUTZ POLARIZATUA TAILERRA**  
BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€  
#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAILTZAZIALEAK



**17, domeka**  
17:30-19:00 - Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK: 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)  
#ZIRKOA



**22, barikua**  
**KORRIKA AIARALDEAN!** HARRO HERRI AIARALDEA!  
#EUSKARA



**23, zapatua**  
22:00 - Faktorian  
**KONTZERTUA/ ITHAKA**  
BAZKIDEEK 8€ / EZ-BAZKIDEEK 10€  
#MUSIKA





# kirola

# Cerro Torre, Patagoniako gailur enblematikoa, eskalatu du Tasio Martinek



Tasio Martin, Marc Toralles eta Ugnacio Mulero Cerro Torren. T.M.

Tasio Martin alpinista urduñarrak Cerro Torre Argentina eta Txile arteko mendi ezaguna eskalatu berri du Filo Sureste-ko bide enbelmatikotik. Marc Toralles eta Ignacio Mulero izan ditu sokakide, Patagoniako haize bortitzek baldintzatutako espedizioan.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Cerro Torre, Patagoniako gailurrik enblematikoena, eskalatu berri du Tasio Martin urduñarrak. Txilen egiten ari den egonaldia luzea baliatu du Martinek Cerro Torre igotzeko. Horretarako, Marc Toralles sokakidearen laguntza izan du. Toralles izan zen, hain zuzen ere, Himalayako Zankareskualdean Txoriatorri (760m, 7a+) bidea irekitzeko aldamenean izan zuen kidea. Bi lagunak soka Ignacio "Nacho" Mulero eskalazalea batu zitzaizen azken unean. "Urteak neramatzan mendi ho-

netan pentsatzen. Edozein alpinistaren ametsa da horra igotzea", azaldu dio Tasio Martinek Aiaraldea Komunikabideari. Urtarrilaren 12an zapaldu zuten hiru eskalazaleek tontorra, Filo Sureste-ko bidea jarraituz.

## Bide historikoa

Cerro Torreko bide ezagunetako bat erabili zuen Tasio Martinen taldeak gailurrera iristeko. 1970an Maestri alpinista italiarrak jarraitutako bidea izan da. Orduko hartangas-konpresore baterabilizuen Maestri Patagoniako horma ezagunena eskalatzeko, eta pareta ilteztz beteta geratu zen ordutik Via

del Compresor goitizena irabaziz. David Lama eskalazale ospetsuak burdin gehiago iltzatu zituen hego-ekialdeko horman 2010ean, bertan dokumental bat filmatzen ari zela.

Hori dela eta, eztabaida handiak sortu dituen bidea izan da urte luzez, harik eta 2012an Hayden Kennedy y Jason Kruk eskalazaleek, Cerro Torre eskalatu osteko jaitsiera iltze guztiak behin betiko kentzeko aprobetxatu zuten, eztabaida betirako isilaraziz.

Martinek, Torallesek eta Mulerok estilo alpinoan egin diote aurre horma ospetsuari, noiz eta Cerro Torrerako estilo alpinoan eginda-

ko lehenengo espedizioak 50 urte betetzen dituen urtean.

## Eguraldiaren tregoa laburra

Hainbat egunez materiala presatatu ostean, urtarrilaren 9an abiatu ziren hiru sokakideak gailurraren bila, soinean bost egunetarako janaria eta materiala zeramaitela. "Gure helburua Filo Sureste-ra igotzea zen. Cerro Torreko oso bide mitikoa eta nahiko zaila da. Gehienbat arroka da bere osotasunean, baina baditu tramo mistoak ere. Izotzean erabat eskalatu behar den luze bat dauka, oso oso zaila. Daukan bereizgarririk handien, azken "Headwall" deitzen dio-

tena da: Granito bertikalez osaturiko 150-200 metroko eskalada, oso lisoa eta zuzenean tontorrera eramaten zaituena", azaldu du Martinek. Bigarren egunean iritsi ziren hormaren oinera. Bidean esperobaino elur eta izotz gehiagorekin egin zuten topo alpinistek, eta horrek martxa asko moteldu zien.

Eguraldiak tregoa oso txiki bat eskaini zien hiru sokakideei, eta hur aprobetxatu zuten gailurrera jotzeko: "Aurreko egunetan oso eguraldi txarra egin zuen, prezipitazio asko jauzi ziren eta dena elurtuta aurkitu genuen, elu freskoa".

Bigarren gaua Col de la Paciencia eman zuten eta bertatik ikusi



ahal izan zuten aurretik zuten bide guztia elurrez josita izango zutela: “Torren oso klima propioa dago, hodeia sartzen da mendia besarkatzen du eta oso eguraldi makurra sortzen da”.

Hirugarren egunean ezinbetsekoaz zuten eguraldi ona izan zuten lagun: “Hirugarren egunean hormaren bi herenak igo eta Ice Towers delako puntuan lo egitea zen gure asmoa. Bertaraino 18 luze izan genituen 6b eta 6c maila artekoak, David Lamak liberatutako 7c/8a mailako largoa ere igo genuen egun horretan, baina guk bariante originaletik egin genuen, eskalada artifizialean igotzen den fisura batetik, alegia”.

Izotz demasak baldintzatuta, espero baino beranduago iritsi ziren lo egin nahi zuten tokira. “Gaueko bederatzietan iritsi ginen Ice Towers ingurura. Oso beranduzen eta ez dira ordu onak non lo egin bilatzeko. Horrelako eskaladetan normalena 18:00etarako lo-zakuan egotea gustatzen zaigu —azaldu dio urduñarrak Aiaraldea Komunikabideari—. Arista oso txiki bat topatu genuen, eta bi ordu eman genituen pioletarekin izotza puskatzen bertan denda montatu eta lo egiteko. Lekua ikaragarria zen, 1.000 metroko amildegia baten gainean”.

#### Tontorra gertu

Azken egunean eta hiru ordu lo eginda, tontorraren bila joan ziren

## Urtarrilaren 12ko 16:30ean zapaldu zuten Cerro Torreko tontorra, eguraldiak eskainitako su-etena amaitzear zela

eskalatzaileak. Izotz-eskaladan igo beharreko bi luzeren ostean *Headwall* famaturairitsiziren, 400 metroko granitozko hormatzar bertikala. Honela deskribatu du Tasio Martinek Cerro Torreko azken txanpa: “Eguzkiak elurra urtu zuen, baina arroka bustita topatu genuen. Lau luzek osatzen dute Headwall, lehenengoa ez hainbetse, baina hurrengo hirurak 6c, 7a+ eta 7b mailakoak ziren, nahiko zailak eta beldurgarriak. Kostatu zitzaigun pasatzea, baina gaingitu genituen. Brutala izan zen eskalada hori, oso berezia izan zen bertan egotea”.

Urtarrilaren 12ko 16:30ean zapaldu zuten Cerro Torreko tontorra, eguraldiak eskainitako su-etena amaitzear zela. Hodeiak erori zitzaizkien gainera eta Patagoniako haizea gogor jotzen hasi zen, jais-teari ekin ziotenean. “Bi ordu rapelatzen generamatzala erori zitzaigun marroia gainera. Oso haize zakarrak harrapatu gintuen. Oraindik ere mila metro genituen rapelatzeke. Hemen Patagoniak beldur handia ematen du. Rapel laburrak eginen hasi ginen, soka bakarrekoak. Soka nonbaiten trabatuz gero, arazo larri batean sartu zaitezke”, azaldu du Martinek.

Urtarrilaren 13an, eguerdiko 11:00etan zapaldu zuten glaziarra eta El Chalten herrira itzulera abiatu zuten, bizitako esperientziaz “harro”.



Cerro Torreko espedizioako argazkiak. Martinek eta bere kideek eguraldi oneko leiho txiki bat aprobeztzeko aukera izan zuten tontorrera iristeko T.M.



# kirola

SASKIBALOIA

## Euskal Ligako A-2 mailan jokatuko dute Zaraobe Saskibaloi Taldeko kadeteek



Zaraobe Saskibaloi Taldeko jokalariek Bañueta kiroldegian. **Chris Gomez**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Duela bi asteburu Arabako Liga irabazi zuen Zaraobeko kadete taldeak. Horretarako Gasteizen jokatuako lauko finalean gailendu ziren kirolariak eta aurten Euskal Ligan arituko direla bermatu zuten horrela.

Asteburu honetan, ordea, A-1 edo A-2 kategorian egongo ziren erabaki da. Amurrion bertan lehiatu zen lauko finaleko bigarren finalerdia eta tokikoek ezin izan zuten Berrio Otxoa kluba menpe hartu. Lauko finaleko txapeldunak izan ez zirenez, A-2 kategorian egongo dira amurriarrak.

TRAILA

## Dortsal gutxi geratzen dira ElorritxuGauetz trail lasterketan parte hartzeko



Martxoaren 24an egingo dute lasterketa. **Aiaraldea.eus**

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Frontalak buruan Elorritxugane eta Jesuri mendi inguruan lasterka arituko dira dozenaka kirolari datorren martxoaren 24ko gauean, ElorritxuGauetz trail lasterketaren edizio berrian. 2020an estreinatutako kirol proba antolatu du berriro Orkatzak Mendi Klubak, Mugagabe Trail lasterketa bezala bi urtean behin errepikatzen asmoarekin.

Antolatzaileek Laudioko Alberto Acero plazatik abiatuko den 17 kilometroko luzera eta 800 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea prestatu dute. Lasterketa 19:30ean abiatuko da, eta afari festa iragarri dute hau bukatzen denerako. Iragan urtarrilaren 14an ibilbidea ezagutzeko irteera antolatu zuen Orkatzak Klubak, kirolariak lasterketarako prestatzeko asmoz. Ekimena solidarioa izan-

**2020an estreinatutako kirol proba antolatu du berriro Orkatzak Mendi Klubak, Mugagabe Trail lasterketa bezala bi urtean behin errepikatzen asmoarekin**

go da gainera. Inskripzio bakoitzeko euro bat X Hauskorren Sindromearen Espainiako Federaziora bideratuko dute.

**200 dortsal baino gehiago**

Dortsal gutxi batzuk geratzen dira eskura martxoaren 24ko hitzorduan parte hartzeko. Azaroaren leian ireki zuten izen emate epea, eta honezkeroko 221 kirolarik jaso dute dortsala. Zifra hauekin antolatzaileek aise gaintu dute lehenengo edizioeko parte hartzaile kopurua; orduko hartan 128 kirolari izan ziren lasterketan. Bi modalitatetan parte hartu ahalko da kirol proban; banaka edo bikoteka. Martxoaren 17a da gaur-gaurkoz eskuragarri dauden 29 dortsaletako bat eskuratzeko azken eguna, eta otsailaren 28tik aurrera hauen prezioa igo egingo da. Internet bidez egin behar da izen ematea, atondu duten web orrian.

**FAKTORIA**

# Dantzasko gorputz iraultzailea

*gorputza askatzeko eta gozatzeko solasaldi eta tailerrak*

**Otsailak 4, domeka**  
Solosaldua: Gorputz ziklikoa

**Otsailak 17, zapatua**  
Tailerra: Gorputz ziklikoa

**Martxoak 10, domeka**  
Solosaldua, gorputza polarizatua

**Martxoak 16, zapatua**  
Tailerra, gorputza polarizatua

**Prezioak**  
Solosaldiak: doan  
Tailerrak: Bazkideek 30€ - Ez-bazkideek 32€

**Orduetgia**  
Solosaldiak zein tailerrak 17:00etan hasiko dira. Tailerraren iraupena: 3 ordu

**Izen-ematea**  
www.faktoria.eus

**Formatzailea**  
Marta Energy

Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio (Araba) | 688 64 79 42 | faktoria@aiaraldea.eus | www.faktoria.eus



# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 7an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Elena

Zorionak Amatxu Elena!!!!  
Muxu handi bat, Untzizu eta  
Aitaren partez!!!!

Familia



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

### ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

### OSO ZAILA

1	4		3				7	
8								
	6					1		
	1		7					2
3		4	8		5			9
								1
4		6					8	
		5				3	1	
			4			2		

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Igor  
Arzuagaren  
Goxoegia  
diskoaren zozketa**

**Igor Arzuagaren Goxoegia disko berriaren zozketa bikoitza**

**Parte hartzeko:** [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketa:** Otsailak 2, 12:00etan.

**QUICK PC  
REPAIR**



Informatika argi eta erraz

**ETXEZ  
ETXEKO  
ZERBITZUA**  
gainkosturik  
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12  
[www.quickpcrepair.es](http://www.quickpcrepair.es) · [quickpcrepair@quickpcrepair.es](mailto:quickpcrepair@quickpcrepair.es)



## IRAKURKETA GUNEA

### GEKOAK OHIARTZUNA ENTZUN ZUENEOA

**Idazlea:** Rachel Brigh

**Idazlea:** Jim Field

**Argitaletxea:** Ibaizabal

Gekoa gure putzuetan topatu dezakegun anfibioa da. Leku paradisiako batean bizi da, baina berak eszenatokiak ditu maite eta hori lortzeko bideari ekingo dio ipuinean.



### OSTEGUNAK

**Idazlea:** Jon Arretxe

**Argitaletxea:** Elkar

**Adina:** 12 urtetatik gora

Ostegunetan gertzen diren istorio ezberdinak jasotzen dituen eleberria da. Istorio laburrak dira erraz irakurtzekoak. Nerabe eta gazteen gaiak lantzen ditu idazleak eleberri honetan. Erraz irakurtzekoa da. Eleberriak badu jarraipena "Ostiralak" eleberriarekin.



## JOLAS GUNEA

### HIZKI PIZTI

**ZERDA?** Argiak argitaratutako material didaktikoa da. Jolas bat da, jolaserako materiala da, baina irakurketa eta idazketan laguntzeko materiala ere bada.

**AZALPENA?:** Irakurketan eta idazketan arituak diren profesional batzuk garatutako materiala da. Alfabeto bat, topatuko duzue eta letra horrekin hasten den Euskal Herriko animalia bat.

Jolasak jolasteko milaka modu ditu txartel handi eta txikiak. Jolasten den bitartean, eta ondo pasatzen den bitartean haurrek ikasi egiten dute. Alde batetik, bere inguruan egon daitezkeen animalia ezberdinak identifikatzen ikasi dezake. Bestetik, animalia horiek zelan idazten diren ikasi dezake.

Kaxa barruan honakoak topatuko duzue: Karta handiak, karta txikiak, posterra, dinamika ezberdinak azaltzen dituen liburuxka eta entzumena lantzeko webgune baterako sarbidea.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Aratusteak

Aratusteak gertu ditugu, jai, mozorroak, ondo pasatzea... Poztasunez beteriko egunak izaten dira inauteriak.

Inauteriek neguko jaien bukaera ekartzen digute, Amalurra lotan egon ondoren esnatzeko garaia dela adierazten digute. Eguzkiak tartea hartzen dio gau ilunari eta lurra emankor egoten hasten da.

Baina, ez gaitezen denboran aurreratu, lehendabizi Amalurra denon artean esnatu behar dugu eta. Ohiturak anitzak dira Euskal Herrian, gurean ere ospatu egiten ditugu Amalurra esnatzeko ohitura ezberdinak.

Makilak hartzen ditugu eta "oles oles" abesten dugu. Makilekin lurra kolpatu egiten dugu lurra entzun gaitzan eta berriz ere emankorra izateko.

Arrankudiagan, adibidez, "eguen zuri" ospatzen dute. Makilekin lurra kolpatzeaz gain, otzaran oilar bat eraman ohi dute. Oilarraren kukurrukua kalez kale zabaltzen dute Amalurra esnatzeko.

Euskal Herriko beste toki batzuetan, joalekin ibiltzen dira kalez kale eta zanpantzarrak edo krikitinekin dantza egiten da.

Baina ez da lurra soilik esnatzen, gaua indartsu egon den negu hotzean amets gaiztoak eta izaki ilunak poterea irabazi dute, horiek uxatu egin behar dira edo Euskal Herriko leku batzuetan erre. Herri ezberdinetako inauterietan dauden pertsonaiek amets gaizto hauen errepresentazioa dira eta inauteriak bukatuta erre egiten dira, gugandik alde eginez mamu beltzak.

Inauterietan, beraz, zarata egin Amalur esnatzeko eta erre amets gaiztoak, udaberria datorela ospatzeko.

## GOXUA



### OSAGAIK:

- Esnea
- Kanela
- Arrautzak
- Arto irina
- Gailetak
- Esnegaina
- Azukrea


### ZELAN EGIN BAT?

1. Lehenengo krema egingo dugu. Horretarako esnea berotzen jarri kanelarekin. Esne hotzetan irabiatu, arto irina, azukrea eta arrautzak.
2. Behin esnea irakiten dagoenean, esne hori beste nahasketarekin elkartu. Gero su geldotan jarri eta irabiatu.
3. Esnegaina azukrearekin arrotu.
4. Gailetak birrindu.
5. Muntatzeko ordua: gaileta birrinduak oinarrian jarri, gero esnegaina bota eta azkenik ateratako krema gainetik bota. Nahi izatekotan goikoa dekoratu.





Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ezin duzu diagonalean mugitu.



# Osatu

Hara, ba azkenean ez zegoen gaizkilerik, gure maskota Zangotxoren txantxa bat besterik ez zen, galtzerdiak eta oinetakoak jantzita ibili baita labirintoan. Marraztu iezazkiozu.



# Zeeer?!!

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esandakoa deskubrituko duzu. Erabili beheko alfabetoa.




<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

**HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA**

A	B	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
O	P	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,

# SOLUZIOAK





# Kontra

## Aiaraldetik mundura



### Jone Iriondo

JAIOTERRIA  
LAUDIO (1992)

BIZILEKUA  
BUENOS AIRES

BIDAIAREN XEDEA  
MEDIKUNTZA IKASTERA  
JOAN ZEN ARGENTINARA



### ARGENTINA



#### DESKRIBAPENA

Argentinako Errepublikak Hego Amerikako estatu federala da. Azalerari dagokionez munduko zortzigarren herrialderik handiena da. 1816an independizatu zen Espainiatik. 1980ko hamarkadaz geroztik ekonomia gainbeheran sartu eta inflazioak baldintzatzen du herritarren egunerokoa.

#### AZALERA

2.780.400 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

47,32 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Gaztelania da hizkuntza ofiziala.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio, Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

## “Etorkin guztiok gainditu behar dugu sorterriarekiko dolua”

Noiz iritsi zinen Argentinara, eta zerk eraman zintuen bertara?

Duela urte pilo etorri nintzen Argentinara, 2016an edo 2017an. Medikuntza ikastera etorri nintzen. Jakina denez medikuntza ikasketetara sartzea ez da erraza Euskal Herrian, korapilatsua izan zen prozesua eta atarian geratu nintzen. Nik argi nuen medikuntza ikasi nahi nuela, eta Iruñean anatomia patologikoa ikasi nuen eta Latinoamerikako mediku asko ezagutu nituen bertan, oso profesionalak. Informatu egin nintzen eta Argentinan nire ikasketak garatzea erabaki nuen.

Urtebeterako etorri nintzen, probatzeko asmoarekin. Oso ondo joan zen lehenengo urte hori eta hemen geratzea erabaki nuen.

Nolakoak dira medikuntza ikas-

ketak Argentinan? Eta osasun-sistema?

Medikuntzaren barruan arlo sozial oso-oso potentea dute hemen Argentinan, asko harritu ninduen iritsi nintzenean. Gauzak egiteko beste modu bat dute hemen, beste *aplomo* bat. Ikasketak garatzeko modua ere bestelakoa da. Medikuntzako lehenengo urteak oso teorikoak dira, Europako hezkuntza-sistemaren antzekoak. Azterketa sistema, ordea, oso desberdina da. Azterketa partzialen bidez zoaz materia gainditzeko, baina azterketa finala ahozko azterketa bat da. Horrek gauzak ikasteko beste modu batzuk bilatzera eramaten zaitu, materia gehiago barneratzen duzu. Askoz praktikoagoa da. Azterketa batzuk ospitalean bertan egiten dituzu, bi medikuren aurrean eta paziente bertan duzula.

Ez zen erabaki erraza izango bertan ikasten geratzea.

Lehenengo urtea hain ondo joan zen ez nuela horretan gehiegi pentsatu. Behin erabakia hartu eta bigarren urtean bueltatu nintzenean sartu zitzaidan *bajoia*. Migratzaile guztiok pasa behar dute haien sorterriarekiko dolua; nire kasuan ere bai. Hasieran dena da zorgarria, bigarren fase batean guztia botatzen duzu faltan eta gero kultura berrian integratuz zoaz gutxika-gutxika. Nire kasuan onartu behar izan nuen atzean utzi nituela hainbat gauza: lagunekin poteoak, familia dinamikak, San Fermín jaiak...

Zerk harritu zaitu gehien Argentinatik?


Argentina zeinen anitza den harritu ninduen asko. Herrialde

oso handia da eta orotariko paisaiak daude: Oihana, behiez jositako lautada izugarriak... Sozialki ere oso anitza da. Etorkinen herrialdea da Argentina eta anitzasun handia dago.

Momentu historiko ugari bizi izan dituzu bertan.

Maradonaren heriotza bizi izan nuen hemen, baita Munduko Kopa irabaztea ere. Ni ez naiz batere futbol-zalea baina izugarria izan zen Munduko Koparen ostean sortu zena. Pandemia oso gogorra izan zen Argentinan, bederatzi hilabete eman genituen etxean itxita eta ospakizun hori energia txute handia izan zen. Orain Mileiren gobernu aldaketa gertatu da. Ekonomia ahul batek eta inflazio etengabeak ezaugarritzen du Argentina. Ez nau harritzen aldaketa nahiak.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA